



KANALA

“Bubble”-ek **kanal propioa** eta **zuzena** du. Propioa, ekintzaile gisa sortua den webgunea delako da, norberak sortutako zerbitzua eskainiz. Modu honetako kanala ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa eta garestiagoa da, baina negozioari etekin handiagoak sortzen dizkio. “Bubble” beste negozio baten plataforma bateko atal bat izango balitz, beraiek kudeatuko lukete, baina etekina txikiagoa izango litzateke.

Bestalde, zuzena, eskaintzaileak bezeroari zerbitzua zuzenean ematen diolako da, inolako bitartekaririk gabe. Hori horrela, kanalaren kontrol guztia bermatzen da.

